

EDURNE KOCH



Hasi da sagardo garaia

■ JUAN MARI ARZAK sukaldariak sartu zion ziria atzo 99ko sagardo denboraldiko lehen upelari, Petritegi sagardotegian hain justu. Astigarraga eta inguruetako ekoizleek Sagardo Berriaren Eguna ospatu zuten atzo, eta gaurtik aurrera jendeak mila txan-

go egingo ditu sagardotegien eta upelen bueltan. Aurtengo sagardoa tradizionalaren antzekoa dela diote ekoizleek, kalitate handikoa, baina motel samarra. Arzakek nabarmendu zuen «zaporez eta sentimenduz» duela gustuko sagardoa. • 14